

Leihoak ireki eta ateak zabaldu

Berlindik Munichera

1936ko uda beroan Owens beltzak Berlingo Olinpiadetan urrezko medailla irabazi izan zutenen, beltz bati eskua ez emateagatik, gizon tiki bat bere leku berezitik altxa, jira eta estadiotik irten egin zan.

1936ko uda beroan, atletek eskua altxatu agurtzen zutenean, bazan esku-altxatze aren esan nahiaz zalantzarik, faxitek ere horrelatsu egiten bait zuten beren agurra.

1936ko uda beroan, Olinpiada guziko jai ofizialik aundiena, Alemaniko ejerzitoko atleten eskeini ziena izan zen. An, gerrako ministro zen von Blomberg mariskala, an ejerzitoko buru zen Fritsch jenerala, an itsas indarren buru zen Raeder almirantea, an Goering jenerala, an von Ribbentrop ordezkaria eta nazional-sozialismoaren zenbait buruzagi gehiago.

Politika an zegoen bizi-bizi, kirolen erdian. Berlindik Munichera, egutegian, ogeita amasei urtetako tartea besterik ez badago ere, bi olinpiaden artean zulo ikaragarria dago. Ogeita amasei urte oiek gizaldiz eta mendez aldatu gaitu gauza askotan. Odol arko ixuri da, malloak cruz isuridira aurpegietan behera eta munduak —ez mundu guziaz— egur azpian ikasi du gizonari zor zaion itzala.

Ez mundu guziaz oraindik, ordea. 1936ko mentalidade asko dago oraindik zurepean.

Orain zapi urte, Iam Smith-en rejimena Londrestik eten egin zan. Mexicon ez zan bere atletentzai lekuri izan baina denborak gauza danak konpontzen dituelako esperantzan, Municheko atak irekiagoak auzalten zitzaizkien.

Joan zen urtean Olinpiar Batzordeak (C.I.O.) Luxenburgon egin zuen batzarrean ireki ziran ate aiek: Rodesiarrek Britania Aundiko ikurpean azaldu nahi bazuten, onartuak izango ziren.

Horrela, Rodesiako atletak, pasaporterik gabe, olinpiar txartel utsarekin eldu ziren Munichera (txartel ori, ain zuzen, Sordaldeko Alemaniak sortu zuten, bere atletak Bonn-eko ezagarririk ez bait zuten lortzen).

Politika berriz ere. Gauzak pakean irtegan baziren, burua belotzu behar. Londresko afgintariak sortu zitzairen lehenbizi zalantza. Zer gerta ote zitekeen horrelako jokoiri jarraituaz? Afrikar guziek onartuko ote zuten neurri zabal au?

Washingtongoak ere berehala konturatu ziren beltzen nahigabeaz. Eta zuriei ez zaie komeni beltz guziaz elkartzerik...

Nixon eta Brandt, auteskunde bezperetan, nolaz jarriko beltzen aurka?

Azuztuaren amaian rodesiar 44 atleta eldu ziren Alemanirra. Uak gero eta aundiago.

Rodesiarrek an badira, bera ez doala Olinpiadara, dio Etiopiak. Tuzaniak, Sierra Leonak, Kanyak eta beste 25 errik beste orrenbete adierazten dute berehalaxe. Abuztuaren 19an, Kempf-en, amerikar atleta beltzek Afrikoekin bat egiten dute.

Beltz guziaz ez joateaz, Munich jai baino lehen gorputz da. Eta auteskundetara jotzen da illaren 22an: Beltzen zapaltze eta lapur dan gobernu baten jendeak ez dauka giza-emakume zuzenean artean azaltzerik.

Olinpiadak politizatu egin omen dira. Atzo goizeko berria! Munduko erri zapaldu guziaz Olinpiadetara euren ikurpean joateko aukerarik emango balie, orduan bai, ederra, politika!

Ez omen gera bakarka bizitzeko jai izan eta gainontzekiko harremanak beharrezkoak zaizkigula konturatzen gera.

Sarritan entzundakoa izango dugu hauxe: «Zuek bakarrak ez zenuteke ezertxo ere egingo. Ezingo zerate bada burnia janaz bizi...». Bai jana, ez da gauregun, bakarrak, gainontzeko estaduekiko harremanik gabe bizi daitezkeen herriak. Egunetik egunera nazioen arteko lotura handiagoa da. Empresak ere ez dira nazio muga barruan finkatzen, nazioz gaidinko enpresak nagusitzen ari zaizkigu, eta honek langilerien alorlean problema berriak eta ezberdinak sortarazten ditu. Heinz O. Wetter jaunak 1970 garrenean zioenez, ehun enpresak kapitalismoaren giropean sortzen den ia guztia produktuko dute. Bada zer-bait. Integrazioa, lantegiak elkar-tzeko eta bateratzeko daoen joera, haundia da Europar bertan.

Elkarturiko lantegi nagusi hauek, ezarri lezateken kontrola ikaragarria. Beren komenentzari jokatzen dute, eta sarritan zenbait lan, esku lana asko behar duten lan-mueta-nen jorنال kaskarragoak oraintzen dituzten lantegietan egin eraziko dituzte. Horregatik ezin daiteke ezaren bururik, eskabiderik planteatu gainontzeko lantegietako langile-oen egoera gogoan hartuz; ez bada, Estaduek baino indartsuago ager daitezke enpresen hauek.

Nazioz gaidinko jokatzen duten leihok ireki eta ateak zabaldu behar, sindikato gehienek or zat ematen duten zerbitu da. Gauzak erabiltzeko era, aztertzeko modua, sindikato bakoitzak eskaintzen duen soluzioa ezberdinak izango dira. Alemaniako konfederazioaren lehen-dakari Wetter jaunak 1970 garre-nean argitaratutako sei garren aldiz-karian (Die neue Gesellschaft - ize-

na buruz ikasten ez gehiegi neka) oraindano egin diren zenbait proposamen aztertzen ditu. Sindika-toek Europaren batasunaren gogoera erakutsi dute betidanik. Baina en-presa gutxi batzuk Europaz jabetzen badira, ondoren txarrak ekin ditza-ke. Estaduek berak baino indar handi-agoa izango duela, alegia.

Nazioen elkartasunaren konformi-dadean langileek ere elkartu behar dute, eta orduan bakarrak izango da Europa zahar-berritua guztiztazt onurakor.

Nazioen arteko ezberditasuna ere gehituz doa, aberastas aberasten eta nazio pobreak, berriz, lur jota. Ez dugu estadistika aipatu behar-rik, begi bistan dadukagun gerta-era dugu eta.

Hirugarren Munduko langileria-ri zelan lagun dezaioke? Lehen pas-osa gaurregun gertatzen den es-plotazioa, komertzio harremanetan, eta abar justiziaz eta zuzentasunez erabiltzea izango litzake, baina lan-gileek ezin dezakete arazo hau kon-pion. Aleman sindikalistek proposa-tzen duten laguntza, batez ere for-nazio aldetik, bertan sindikatoak antolatzeko behar duten diru lan-guntza aldetik zuzentzen dute. Badira zenbait esperiantzia: atzeratutako nazioetako gazteak, ongi gertutera, Europara ekarrazteko ahaleginak. Baina hauek ere ez dute fruitu ia-riegirik omen. Alde batetik, iru-izuk Europar gelditu izan da. Beste zenbait sikolojaren ondorioz, sortutako trauma ezin gaitzitu behar dutelako.

Radikalagoak diren sindikatoek, berriz, burruka bideari gehiago ekiten diote. Inperialismoaren aurka denak burrukatu behar direla pro-posatzen. Horretarako elkartasuna eskatzen da, bai Europako sindika-tzen artean, eta baita zapalduko nazioetako langilekiko batasuna ere.

Horrela mintzo zaizkigu CGILko F.I.O.M federazioak 1970 garrenean egin zen Kongresoan.

Guk ere leihok zabaldu. Zabaldu leihoka bestek daramaten burruka gurea dela ikusteko, kapitalismoak inperialismoa sortzen duela behin betirako ikasteko, sindikatoen erakunde eta alderdi onak gogoan hartzeko. Zabaldu ateak guk sufrizten dugularik sufrizten dutenekin bat egiteko «Hirugarren Mundu» barruan bederik, guretzat ere txoko bat izan dadin...

Mikel Ugalde



Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputxinoak argitaratue (Kale Nagusia, 50-1. Burlada-Plampona).

Demastian: Okendo, 22
30.666

PRE SARIA:

Urteko 300 pezeta

Urteko batasun-eko errietan 350 pezeta

Azterriko ber- te urrietan 370 pezeta

Aldez Aurrez gal- detu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

B A R K O X E T I K

«Zübü bat trebesa zatie, eta koton goiti Etaxhunia düzie barrea-türük». Ziberutau doinu zerbaite eta laister esana, horrelako arbakat azaldu zaigu. Urrunsko utzi dugu Barkoxe. «Bürgia» hauzuentzi Mendebalderuntz abiatuak, bide baketsu batetik goaz Arhañeko Kaperean aldera («Chapelle de la Madeleine»-omen). Baserriak ugari dira, eta ez dirudite hutsik.

Etaxhunia nun den bi aldiz gal-detu dugu; eta erantzule izan diren bi baserriarrek, bi leku desberdi-netan, argi-eta-garbi azaldu digute Etaxhunia-ren aztarnak nun ikus dai-tezkeen. 1862an hil zen Etaxhun; baina Etaxhunen oroitza zena ez da bazter haietan galdu.

Eta zubitxo «trebesatu», beraz, eta aldxapa batetan, ezkerretan, hari XIXtroduneko hesi batez ingu-raturik eta belar gaitztoek ausarki erasorik, hantxe dautzaz, bai, isilik, ia estalirik, Etaxhunia izandakoaren murrur hondakinak. Atalburuan fet-xa harrigarri bat: «1863». Etaxhun bera 1862an hil zen. Zerzagit 1863, hortaz? Haritxelharrek berak ez du garbiki esan. Eta xehetasun honetan ere Etaxhunen zoritxar eta ma-darikazio etengabeen atal bat iku-si beharra bide dago: Etaxhun hil ondoan eraikia Etaxhunia...

Bazterretako isiltasun guztizko hura azaldu ezinezko iruditu zait. Hiruzpalau kilometrotara, beheeran —eta ez Larraketak zion zapzi-ztitara— Barkoxeko etxeak somaten dira. Anitz munok, hemen eta han jauzkarri, xarma harrigarria ku-tsatzen dio hango ikuspegiari. Be-lardi izen zabalak zuhaitz ilarek inguratzen eta ebakitzen dituzte, Kanbillu-ko mazelak nabartuz. Ba-serriek, habia ilunen antzera pata-rretan kokaturik, arbelzoko teilatuak erakusten dituzte; Barkoxeko esku-aldeari, Urzari, Aspe eta Baret-usko ibarrei bezala, bere doi ja-tor berezia erantsiz.

Eta ni neure golkorako mintzo: «...bazter zerutar hauetan, ordea, odolez oratu da, eta oinazetan be-

rriztatu, gizonaren patirik zahar-re- eta trajeriarik ingarriena: Pierre Topet olerkariak maite zuten emakume besteri utzi behar, eta beste maite zuten emaztea berriz, laido eta atsekabe iturri izanagetik ere berak jasan behar...». Egoera arrunta, omen; jasan-betxena eta hil-beherra ere giza-egoera arruntak diren moduan.

Etaxhunia zaharrakututa dago, «barreialuta»; Etaxhunen bizia be-zain zoritxarreko gertatu da Etaxhunia-ren segida: ijittuen babesleku izan ondoren, gaur... osinaga! Eta ni baldur batzutan, askotan, gehi-egitan omen, Topet eta Etaxhunia bera ez ote diren Zuberoaren eta Euskal Herriaren suntsieraren zan-tzu mingotsa. Ezen Etaxhuniaren ingurutuan Arhañe, Madeleine bi-hurtu baita; Ustasau, Geüs; Uha-zandi; Saison; Isuzi; Eysus; Ürrüs-tori, Arrast; Iñhasi, Féas; eta Be-rorize, Montory... Eta neronek fro-gatu dudanez Berorize nun den gaur nehorik ez daki.

Etaxhuniatik aurrera aldapa go-gortu egiten da. Handik metro gu-txitara 1834eko fetxa daraman ba-serri eder baten aztarnak ageri di-ra, erdizka mandio gisa erabiliak. Harri horiek ere Etaxhunen lekuko izan ziren.

Erretzu eta Madalenaren arte-tik joaki, lilluragarria da benetan Atharrazerako bideak. Ezker aldean, ba-sa eta gogor, gailur zortzetz egi-na, Añuñemendiko katea ageri; eta beheeran, sakabanaturik, arbel bel-tzetako baserri harrigarriak.

Ez dio zorrrik, halere, ene uestez, beheerako bideak; alegia, Barkoxe-tik hasi, eta Berorize-tik Atharraz-terra doana. Bihurgune itzaltsu ba-tetan, Baretus-ko mugan, Landa-rako bidarte ahantzia ikus daitezke. Tarketa, beti ilun, beti isil, beti arbel beltza estalgarri, baserri arkaiko bat. Noiz edo behin, bigotea trinko, euskal usaina aditu nahi dutenik baserriar bat lanean ari, Aspaldiko ez zaizkike Josibaiko 14 km. bakarti

horietan barrena ibili izanak damu-tuko.

Bazterrak ederrak dira, bai. Baina Haritxelharrek berak bere liburu bikainean azaltzen duenez, ahoz-ahoz eta oroitzaetan gudanaino ahitu da. Zerzagit ahitu, bada? Barkoxtar eta zuberotar gazteak eus-kara zeharo baztertzen ari direlako, Adinek jendeak, hau egia da, eus-karaz ari dira beren artean. Baina gazteak frantsesez. Barkoxe, Es-kiula, Atharratz, Maule, eta Etaxh-uneko orain dela ehun bat urte osoki euskaldun ezagutu zituen he-rriak, kaskoizten ari dira. Euska-ra, bere horretan, traba zale zube-rotarrei; eta ez mintzabide. Ez-ja-kintzaren tresna, eta ez jakintza-za. Ber gurtziago irabazpide, eta zuberotarrek euskara ahaztuztea erabaki dute.

Etaxhunen bertso apartak, horre-la, belaunik belauz zuberotarren poggarri izan ondoren, gaur libu-ruetan bildurik irakur daitezke, bai-na nekez Barkoxeko edo Atharraz-terako gazteen ahotan; gazte jen-deak ez baitu... konprenituz! Etaxhun arrotz ari da gertatzen be-rrerortier; eta Etaxhuniaren hon-dakinak, horretara, suntsitu zen he-rri baten lekuko gerta daitezke lais-ter bakardade zoragarri hartzen.

Suntsiera-kutsu bera hartzen ari da Bürgüko kaperan, harrizko atal-buruan, irakur daitezkeen oroitari-hau: «Barkoxeko Mariaren Concep-cione thonogabari cholera dembo-ran bere sokhorriçalari. 1855». Itzaldutako herri baten aztarna huts laister? Nork konprenituko?

—OO—

Zer diot, ordea, «konprenituko»? Teta ikusiko ere atalburu hori! Ba-saburuan (= Zuberoa Garaian) 1940tik 1950era ari jaiu direnen artean, bertan bizi ezinik, %82-ek egin diote alde Zuberoari.

Barkoxe, beraz, arrotz egiten ari da; baina baita hustu ere. Zuberoa

guztitan 18.000 lagun bizi dira gar. Probentzia oso bat izana, gaur Eus-kal Herria-ren %ko 0,73 bihurtu-rik!

Lizeoan muntatua, Atharrazterko Erakusketak ikusgarriak ematen du dato hori; eta beste mila horrela-ko ere bai. Nekez soma ditzaite horrelako arazoak Bizkaiko Mende-baldean bizi direnek. Zuberoako kezka nagusia, ordea, BAZTERREN HUSTATUZA da: zuberotar jenda-keta behera doa aspaldi honetan, gutzit behera; eta baserriak «ré-sidence secondaire» bihurtzen ha-si dira. Nor erosle? Zuberotarrik berak? Ez horixel Zuberoa, horre-la, kanpotarren ehize-leku eta ba-kantza-eskualde HUTS ari da bi-hurtzen. Eta Zuberoako Sindikato berriak, horretara, herrialdearen sal-menta horren kontra jokatu nahi da ausarki. Aurkariak gutxi dira oraindik; baina gaur arte in ez. Zuberoan turismoa izan baita hitz majikoa.

Nola etsi? Nekez. Diru-bahitu-rak lortzeko 26 hektarea izan be-har dira (ez baita gutxi). Hitz ba-idez: baserriarrik ahulenek ez da-dukate diru-laguntza lortzerik. Aski dute, dio Atharrazterko Erakusketak, jendarme egin eta etxetik uxatu du-ten sistema defenditu...

Bizimodua zailegi da; eta ema-kumeek ez dute mendira ezkundu nahi. 59 artzain bizi dira Basabu-ruan mutilzar, ezin ezkundurik; eta goiko alderdietako bakardade gar-razt hotzean bakarririk burrukan ari.

«lanak güti biziazten lanak güti hilazten» irakurri dugu (behin bederen eus-karaz!) Atharrazterko Erakusketan. Eta segidan: «les écoles de nos villages, non rentables, sont fer-mées... donc obligation pour les parents d'envoyer les enfants hors de leur village». Eskolak hesten ari; negu mianean ere haurrak urru-tiraino bidali behar.

Mauleko treina kendua izan da. Oloro- Atharrazte autobus-lotura kendua ere-bai. Kotxerik ez dute-

nek zer egingo? Hanka! «La mon-tagne est belle... lorsqu'il ne faut pas y vivre»: mendia ederra da... bertan bizi behar ez delarik!

—OO—

Zuberoa txikia da. Baina zuberota-rraren bihotzak asaldatzen hasi di-ra.

Alde batetik, ekonomiaz batez ere arduraturik, G.E.D.S. taldea sortu da Atharrazten; eta argitaratzen duen «Jeiki» kaseta, dohargi zabal-dua, gogorra da, ausarta, egitiaia (eta %100-ean frantsesez idatzia, dena esateko). Honen eragina Zu-beroako Sindikatoan hasi da naba-ritzen: turismokidearen kontra, Ira-tiko xaletamokidearen kontra, Du-bosq deputatuaren kontra.

Erdakuntzari buruz ere, garrasi zortzotzak entuzten hasi dira. Mau-leko «Le Miorir de la Soule» ka-setan (1872-1873-ko banaokan), Zuzendaria den Pierre Uday-k izen-peturik, egiazko delhidar bat ager-tu da «euskara salbatzeko». Uday-k ohar batzuk egin ondoren, honela dio: «Pour sauver le basque, il faut entreprendre une tâche im-possible: CHANGER LES ESPRITS». Eta izpirituak aldatzen hasiak di-ra, ez da dudarik. Arhañeko kape-raki paretetan ikusi dugu, Eta Ga-rindainen agertu da ere, ozenki, Abuztuaren 14ean Euskal Kantuaren festan. Frontoin berria gainezka; eta entuleria, gazte osatua, ezin beroago: 1.700 lagun! Gauza ber-tsuaren Origin, hementxe azaldu nue-nez, orain dela aste batzuk. Eta kantua ez da beti gexa: «Basabürrian Montori,

han bazen jaun bat beillari... Bost kordatuko zuberotar «tan-buia» ez da gaur Zuberoan erabiltzen. Urzarri (Ossau-n) bai, ordea, Biarnon, beraz. Tradizino-mota hori galdua da.

Garindainen somatzen denak eka-rriko ahal digu uzta hoberik!